



2018 denboraldiari Malagan ekingo dio Mendi Lasterketen Euskal Selekzioak Espainiako Kopako igande honetako proban bost ordezkariarekin

- *Munduko Kopa, Espainiako Kopa eta Txapelketak, eta Munduko Ultra Txapelketa dira jomugak*
- *EMF-k Koparen ordezkariak sortu du 14 euskal lasterketa aintzat hartuta*

2018ko martxoak 21. Mendi Lasterketen Euskal Selekzioko bost korrikalarik hartuko dute parte datorren igandean, hilak 25, Espainiako Kopako lehen proban, Trail Cara los Tajos, Malagako Alhaurin El Granden: **Iban Letamendi, Julen Martinez de Estibariz, Asier Alonso, Ander Iñarra** eta **Mayi Mujika**.

32 kilometroko proba da, 4.300 metroko goitibehera metatua duena. Espainiako Kopak izango dituen bost probetatik lehena da. Euskal selekzioarentzat urteko helburu nagusietako bat da Kopa hori, Espainiako Txapelketa, Munduko Kopa eta Munduko Ultra Txapelketaz batera.

Iñaki Uribe-Etxeberria eta **Iban Letamendi** eta **Gaizka Barañano** arduratuko dira aurreko selekzioaz, lehen biak linearako eta Gaizka Ultretarako, eta korrikalariekin batera osatu dituzte helburu horietarako blokeak.

MUNDUKO KOPA

OIHANA AZKORBEBEITIA (Abadiño)
JOKIN LIZEAGA (Urneta, Zanpatuz ME)
HASSAN AITCHAOU (Villabona, Idiazabal KE)
IMANOL GOÑI (Ea, ArrolapeMT)

MUNDUKO ULTRA TXAPELKETA

LEIRE MARTINEZ (Portugalete, Erlaitz ME)
JAVI DOMINGUEZ (Gasteiz)
JON ERDAIDE (Gorliz, Zanpatuz ME)
RAUL MACARRO (Bilbo)

ESPAINIAKO KOPA eta TXAPELKETA

AITZIBER IBARBIA (Zizurkil, Aizkardi ME)
MAYI MUJIKA (Elgoibar, Morkaiko ME)
IBAN LETAMENDI (Oñati, Aloña Mendi KE)
JULEN MARTINEZ DE ESTIBALIZ (Hermua)
ASIER ALONSO (Oñati, Zortzietakoak KE)
ANDER IÑARRA (Lezo)
XABIER MACIAS (Iruña, Sestao Alpino)





Munduko Kopan -Migu Run Skyrunner World Series-, berme osoko lau korrikalari beterano arituko dira: **Jokin Lizeaga, Hassan Aitchaou, Imanol Goñi** eta **Oihana Azkorbebeitia**. Oihanak iaz 5. amaitu zuen sailkapen orokorrean Buff Epic Trail irabaziz Lleidan; Hassan txapelunordea izan zen 2016an Estatu Batuetako *The Rut* irabaziz, 6. 2013an, eta 9. 2015ean; Jokin 4. 2012an Frantziako *Montcalm* irabaziz, 5. 2013an, 7. 2011ean, eta 10. 2009an *Montgenevre* irabaziz Frantzian; eta Imanol 12. 2013an. Munduko Kopak, Sky Classic eran, 10 proba ditu aurten, eta azken sailkapenaren lehian sartzeko gutxienez hiru probatan hartu behar da parte eta gehienez bost emaitza onenak hartuko dira kontuan.

Javi Dominguez, Jon Erdaide, Raul Macarro eta **Leire Martinez** Munduko Ultra Txapelketan arituko dira, Eskoziako Ben Nevis Ultra proban, irailaren 14an. Bi aste lehenago, Espainiako Ultra Txapelketan arituko da bloke hori, Valle de Tenan, Panticosan, irailaren 1ean. Javirena apustu sendoa da: Tor des Geants irabazi zuen iaz marka berria ezarriz, eta baita Ehun Milak laugarrenez; Jon Erdaide eta Raul Macarro Basque Ultra Trail Series zirkuituan nabarmendu ziren iaz: Jonek Donostia-Bilbo etapa irabazi zuen eta Bilbo-Gasteizen 2. izan zen, eta Raulek 3. amaitu zuen Iruña-Donostia etapa; Leirek, bere aldetik, zirkuitu horretako azkena, Donostia-Bilbo irabazi zuen iaz, eta G2 Handiak proban gailendu zen 2016an.

Mendi Lasterketen Euskal Selektzioaren 2018ko EGUTEGIA

MARTXOA		
8	Espainiako Kopa	Trail Cara los Tajos, Alhaurin el Grande, Malaga
APIRILA		
15	Espainiako Kopa	Garganta de los Infiernos, Jerte, Caceres
MAIATZA		
6	Espainiako Kopa	Panxampla, Alfara de Carles, Tarragona
27	Munduko Kopa	Zegama-Aizkorri
EKAINA		
10	Espainiako Txapelketa	Mabo, Borriol, Castellon
16	Munduko Kopa	Livigno SkyMarathon (Italia)
23	Munduko Kopa	Olympus Marathon, Dion (Grezia)
24	Espainiako Kopa	Zumaia Flysch Trail
UZTAILA		
1	Munduko Kopa	Buff Epic trail, Barruera, Lleida
29	Munduko Kopa	Comapedrosa Skyrace (Andorra)
ABUZTUA		
5	Espainiako Kopa	Vistabella, Castellón
25	Munduko Kopa	Matterhorn Ultraks, Zermatt (Suitza)
IRAILA		
1	Espainiako Ultra Txap	Valle de Tena, Panticosa
1	Munduko Kopa	The Rut (Amerikako Estatu Batuak)
14	Munduko Ultra Txap	Ben Nevis Ultra (Eskozia)
URRIA		
13	Munduko Kopa	Limone Extreme (Italia)



EMF egutegi ofiziala: Euskal Herriko Mendi Lasterketak

Euskal Mendizale Federazioko Lasterketa Batzordeak Txapelketa ofizialez batera Lasterketa Rankinga sortu du 2018 denboraldirako, orain arteko Kopa eta sailkapen konbinatua ordezkatzeko dituen.

Guztira 14 probek osatzen dute, eta jada Kalamua jaitsierarekin jarri zen abian, urtarrilean. **Joseba Plaza** Markina-Xemeingoa eta **Mayi Mujika** elgoibartarra izen ziren irabazle, beraz haiek dira rankingeko behin behineko bi liderrak. Bigarren proba larunbat honetan bertan, hilak 24, Kolaziño Mendi Eguneko lasterketan egingo da, Bedia.

EMF TXAPELKETAK 2018			
APIRILA			
22	Linea	Aloñako Igoera	Oñati
UZTAILA			
13-15	Ultra	Ehun Milak	Beasain
IRAILA			
23	Bertikala	Uharte Arakil-Beriain	Uharte-Arakil
EMF RANKINGA 2018			
URTARRILA			
13	Linea	Kalamua Barinaga jaitsiera	Markina-Xemein
MARTXOA			
24	Linea	Kolaziño Mendi Eguna	Bedia
APIRILA			
28	Ultra	Nafarroa Xtreme	Zubiri
EKAINA			
2	Ultra	EH Mendi Erronka	Leitza
2	Linea	Galdames Mendi Bira	Galdames
9	Linea	Gabez Takarraran	Eskoriatza
10	Linea	Intxixu Trail	Oiartzun
10	Linea	Lakuntza Aralar	Lakuntza
17	Linea	Amurrio Trail	Amurrio
17	Linea	T3T	Tolosa
24	Linea	Triku Trail	Etxarri-Aranatz
IRAILA			
9	Linea	Axari Trail	Idiazabal
15	Bertikala	Intza Ttutturre	Intza
URRIA			
6	Bertikala	Anboto KB	Atxondo

